

JA! (d). interjekzioa. Urduritasuna, presa, afana... adierazten duen esklamazioa. *Neska koxkorrak giñanian, berriz, erromeixarako opilla, ezta, opilla ta tortillia, ezta. Ja! Sekula jan ezpagiñu bezelaxe bertara baiño len jan.* Sot. (AA BergEus, 334. o.)/ *Santa Maiñan atso pilla aundi bat begira, eta, ja! Mutillakin jatxi giñala etxekuei kontauko ete dotsen billurrakin, laga mutillai besotik eta...* Sot. Gutxi entzuna.

JÁBE, jabía (b). izena. ZEREN. Dueño. *Zein da guardasol onen jabia?/ Zazpi etxen jabe da./ Ezta bere buruan jabe.* ZEREN jabe edo jabea. **jábe eiñ**. **jabe eiñ** (b). da aditza. Hacerse dueño, adueñarse. *Poliki-poliki inguruko terreno guztien jabe ein zan.* Sin. **jabetu**. **2. jabe eiñ** (c). da aditza. Hacerse responsable. *Bera etzala orren jabe eitten.*

JABETÁSUN, jabetasúna (c). izena. Propiedad. *Etxian jabetasun agirixa notarixan i dao./ Papeletan argi agertzen da terreno orren jabetasuna.*

JABÉTUkonturátu (b). da aditza. Darse cuenta. **1. jabetu** (c). da aditza. Apoderarse. • Aduẽ;arse. *Neu jabetu naiz zure erlojuakin.* ZEREKIN jabetu. Ik. **jabe eiñ**. **2. jabetu** (c). da aditza. Konturatu. *Etza jabetzen zer pasau dakizun?*

JABÓE, -I, jabóia (a). izena. Jabón.
jaboia emon esapidea. "Pelota egin". (Lar Antz).

JABÓI-TÁKO, jabói-tákua (c). izena. Pastilla de jabón grande y rectangular. Ik. **táko**.

JABÓIUR, jaboíúra (b). izena. JABONUR. Jaboia duen ura. *Jaboiurakin garbitzen dau bizikletia.*

JABONADURA, jabonaduría (c). izena. KO TABLIA. Arropari jaboia ematea garbitzeko. JABONADURAKO TABLIA esaten zaio horretarako erabiltzen den oholari.
JABONADURAKO TABLIA esaten zaio horretarako erabiltzen den oholari.

JABÓNDU (c). du aditza. Jaboiaz igurtzi. • Enjabonar. *Da gero aura lixibia, ba, jabondu, ta an dana tolosturan ipiñi, sutako autxakin egosi... Hil. Jabondu, da gero uretan, urkorrientan, ur garbixan astinddu. Don.*

JAGI Ik. **jaiki**.

JÁI1. jai, jáixak (a). izena. Festak. • Fiestas. *Laster die Elorrixoko jaixak.* Pluralean ia beti. **Fiesta** edo **fiesta** ez da ia sekula esaten zentzu honetan. Ik. **fiesta**. **2. jai** (a). Lanik egin behar ez tako eguna. Aditza ondoan duela erabilia. • Día de descanso laboral.

Biar jai artu biot medikuana joateko./ Aurten Paskuetan eztaukagu jairik. jai euki (b). esapidea. No tener ninguna oportunidad, nada que hacer. *Alperrik abill, neska orrekin jai daukak./ Geixao ezpada zaintzen jai dauka pelotan./ Emen lan egiñ ezian, jai dago. jai tta aste* (b). esapidea. Egunero, beti. • Tanto en día laboral como en festivo. *Esne partitzen jarduten dau jai tta aste, uda ta negu.* Ik. **jaiégun**.

JAIÉGUN, jaiegúna (b). izena. Día festivo. *Jaieguna aillegau ta lan ein biarra tristia da.* Ant. **astégun**.

JÁIKI (a). da aditza. JEIKI. **1. jaiki** Levantarse. *Seiretan jaikitzen da egunero.* Grabaketetan JAGI bat agertu zaigu. *Eitten zoskun señoriak erlojua zertu, gu goizao jagitzeko, mezetarako, astuen moduan lana eitteko. Eli.jaikíxan. **1. jaikíxan** (c). adberbioa. Al galope (zaldia, astoa, txakurra). *Atzo**

astuan jaikixan etorri nitzuan kaletik etxeraíño. Sin. **laukúan. 2. jaikíxan** (c). adberbioa. Bizikletan jarlekutik jaikita. *Jaikixan igo najuan Elgetako aldapa guztia*. Ant. jarritta. Ik. **zutíttu. 2. jaiki, jeiki** (c). du aditza. Jeikierazi. *Umiak siestatik jaiki dabe aittajuna./ Zegaittik jaiki nozu ain goiz?* **3. jaiki** (c). zaio aditza. Zakila tentetu. • Empinarsen el pene. *Orri oiñezkero etxakok jaiki be eingo./ Neska ori ikusi orduko jaikitze jatak*. Inoiz adinekoei entzun diegu bazirela antzina "pastillas Jaiki" esaten zitzaienak. Garaiko "Viagra", itxura denez. Ik. **tentetu. 4. jaiki** (d). da aditza. Ogi orean harrotu. *Oria etxian eitten danian eromaixan —oramaixa orreaittik izengo da— “Oria eindda dao? Oria jaikitta dao?” Lebaduria, azkarrixa emundakuan, da aura kurtiduta ipiñi tta, epelian, jaiki eitten dok aura. Don./ Ogixa erriaz doia, ondo jaiki da, jaiki. Don.* **5. jaiki** (c). zaio aditza. Ehiza-aberea bere gordelekutik irten ehiztariak eraginda. *Nere muturran aurrian jaiki jatan erbixa*. Ik. **paráu. 6. jaiki, jaikíxa** (c). adjektiboa. Altivo, -a, orgulloso, -a. *Ezta persona txarra, baiña jaiki samarra*. Ik. **ténte, urten. 7. jaiki, jaikixa** (d). izena. Harrokeria.

eukixan jaikixa (c). esapidea. Dirua izateak ematen duen harrokeria. *Ez gure aberats barrixak asko ekixelako, baiña eukixaren jaikixa eban berakin. (SM Zirik)./Juan jakozen ari eukixan jaikixak; gizajuak ez eukan zer aora eruan, ezta ilda nun jausi be. (SM Zirik)*. Zera diosku idazle eibartarrak: "*Eukiaren jaikia burua gora edo atzeruntz dabela ibiltzen diren aberats barriengatik esaten da*". **8. jaiki, jaikixa** (d). izena. (Eibar) Garbo. *Ikusizu zelako jaikixa daroian zure alabiak. (AAG Eibes)*

JÁIO (a). da aditza. JAIXO. Nacer.

JAIXO eta bere eratorriak ere bai, mendebal aldera, batik bat. **Goitzxo jaio giñuztan!** esaera. "Zerbait ikusi ez edo ezagutu ez edo eduki ez duen pertsonak esaten du, bere garaian halakorik ez zelako. **jaiúa izan** **1. jaiua izan** esapidea. Jaiotakoa izan. *Ori Elusun jaiua da.* **2. jaiua izan** esapidea. Trebea izan. *Ni enok dantzarako jaiua.*

JAIOBÉRRRI, jaioberríxa (a). Recién nacido, bebé. *Oinddio jaioberrixa zan aitta il jakonian.*

JAIÓKERA, jaiókeria (c). izena. Jaiotzea. • Nacimiento. *Oso jaiokera txarra euki zeban./ Jaiokeratik eskuko atzaparrak falta jako./ Jaiokeratik da itxua.* "Jaiokeratik", batik bat; gutxiago beste kasuetan.

JAIOITÉGUN, jaiotegúna (c). izena. Día de nacimiento. *Oinddio goguan daukat zure jaioteguna.*

JAIOITÉRRRI, jaioterríxa (c). izena. Pueblo natal. *Berrogei urte kanpuan eindda gero etorri da jaioterrira.*

JAIOITÉTXE, jaiotetxía (c). izena. Norbait jaiotako etxea. • Casa natal. *Pedro karnazeruan jaiotetxia erre da.*

JAIXO Ik. **jáio**.

JAKA **inddarra Jakan** (c). esapidea. Indarra falta, indarra auzoan. *Erronkia ugari arrixa errez jasoko zebala, baiña gero plazara urten eta zera, inddarra Jakan*. Lehenengo (gerra aurrekoa, hain zuzen) tentsio altuko argindar-linea Jakatik zetorren. "Jakako linea" deitzen zitzaion. Hortik esapidea.

JÁKE, jakía (d). izena. Jaka. • Chaqueta, zamarra. *Gure aittajunak jakia jazten zeban, ez txaketia askotan.* Gure aitonak ez zuen beste hitzik erabiltzen txaketari deitzeko. Gabardina eta bestelako estalgarri handiei ere *jake askotan*. Ik. **gában**.

JAKÉDUN **1. jakedun, jakedúna** (d). izena. Jakea jantzita daramana. **2. jakedun, jakedúna** (d). izena. Gizarte-maila apalekoa. Ik. **gabándun**.

JÁKI, jákixa (d). izena. Alimento, pero parece que en Bergara solamente se dice asociado a "txarra" o "ona", en frases como esta: *Txakurra gaixoik dago, jaki txarren batek gaitz eindda ero.*

JAKÍNAI, jakínaixa (c). izena. Jakingura, jakinmina. • Curiosidad, avidez de saber. *Auzoko berrixen jakinai aundixa zeukan mojiak./ Baina, baina... zuk daukazu jakinaixa, zuk!* Sin. **jakingúra**. Ik. **jakínbiar**.

JAKÍNBIAR, jakínbiarra (c). izena. Jakin-beharra. Jakiteko grina. • Curiosidad desmedida. *Batzuk iñon etxeko goraberen jakinbiarra izaten dabe./ Orren jakin-biarrak eztauka akaburik./ Jakinahi (eta jakingura) eta jakinbiar antzerakoak dira, baina jakinbiar-ek ikutu peioratibagoa du berez.*

JAKINDURÍXA, jakindurixía (b). izena. JAKITURIXA. Sabiduría. *Masajista orrek eztau jakindurixa aundirik eukiko, baiña eskua primerakua./ Bere jakindurixa guztia azaldu nai izaten dau./ Berak jakindurixaz, bere buruko inuzentzixatik. Hil./ Orretarako dittuk ire batxillerrok, jakiturixok eta medikuntzok? (SM Zirik)*

JAKINGÚRA, jakinguría (c). izena. Jakinahia, jakin-mina. • Curiosidad. *Preguntia preguntian gaiñian; Jesus, atso orrek dauka jakinguria.* Sin. **jakínai**. Ik. **jakínbiar**.

JAKÍNTSU1. jakintsu, jakintsúa (b). adjektiboa. Jakinduria askokoa. • Sabio, -a. *Gizon jakintsua zan Barandiaran.* **2. jakintsu, jakintsúa** (b). adjektiboa. Sarri erabiltzen da "sasijakintsu", "harro" esanahian, ironiaz. *Ezautukozu Nikasio. Bai, beti berriketia darixola dabillen jakintsu bat.*

JAKINTSUKERIXA, jakintsukerixia (c). izena. Sasijakintsuaren esana edo ekintza. *Arek beti jaukak jakintsukerixan bat.*

JÁKIÑ1. jakiñ (a). du aditza. Saber. *Eztakitt zure izena./ Orrek jakin daki (asko dakiela).* Adineko banaka batzuek bakarrik darabilte /z/ pluralgilea: dazkitt, nezkixen, etab. **eskumia eta ezberra nun daukan jakiñ ez** esapidea. "Ezer ez jakin. Ezer ez tok, eskumia eta ezberra nun daukan etxakik, ta asko iritxixaorik etxuat ezautzen." (Lar Antz) **eztakitt zer, badakitt zer** (b). esapidea. No se qué, no se cuantos. *Gizurterua nitzala, ezta kitt zer badakitt zer.* **eztakizu asko** (b). esapidea. No sabes bien. *Eztakizu asko zelakuak esan dittuan zuregatik.* **2. jakiñ** (b). aditza. Ohitura izan. *Arek badaki zapatutan Anttoninera juaten. Eguraldiaz ere bai: Badaki martixan bero galantak eitten./ Badaki udazken ona eitten.* **3. jakiñ** (c). du aditza. Gauza ez kutu bat, txori-habiak, batik bat, edo gordailuren bat non dagoen ezagutu. • Saber donde se encuentra una cosa oculta, un nido, por ejemplo. *Nik zortzi apixa dazkitt./ Orrek zozo-apixia daki./ Nik arrautza gordailua dakitt.* **4. jakiñ, jakiña** (b). adjektiboa. Begi-bistakoa, jakinekua. • Sabido, notorio. *Kontu jakiña da ze pasau zan gure Txabolapian./ Ire kasua oso jakiña dok errixan.* Ik. **jakiñeko**. **5. jakiñ, jakiña** (c). adjektiboa. Concreto, -a. *Ez giñan geratu egun jakin baterako./ Leku jakiñian laga giltzia.* Ik. **jakiñeko**.

JAKÍÑA (b). juntagailua. Noski, horixe. • Claro, por supuesto. *Eran ein juan da, jakiña, mozkortu.* Ik. **klaro**.

JAKIÑÉKO1. jakiñeko, jakiñekúa (b). izenlaguna. Jakina, gauza jakina, bistakoa. • Sabido, notorio. *Karnetik barik zebillen kotxian da jakiñekua zan ze pasau bia jakon./ Jakiñeko gauzia da etxe orretako jiria.* Ik. **jakiñ**. **2. jakiñeko, jakiñekúa** (c). izenlaguna. Aurrez pentsatutakoa, ados jarritakoa, konkretua. • Concreto; pensado o concertado previamente. *Manifestaziño ondoren jakiñeko leku baten geldittuko ga, bestela ez tou alkar topauko ta./ Durangora jakiñeko liburuak erostera joan bia da denporia galdu nai ezpada./ Jakiñekua zan pasau bia zana.* Ik. **jakiñ**.

JAKIÑIAN (b). adberbioa. JAKITTUNIEN (LEIN.). Jakinean. • A sabiendas, al corriente. *Jakiñian dago ama berandu joango naizena./ Anaian jakiñian arrapau zotsan dirua amai. Jakiñian egon, batik bat. ZEREN edo NOREN jakiñian. JAKI*

JAKÍTUN, jakitúna (d). adjektiboa. Asko dakiena, jakintsua. Eskola asko dakiena, jaso dugun adibide bakarrean. *Zuen moduko jakitunak ez ga gu; ez giñalako joan. Geu be joan bagiña nok daki noraiño aillegauko giñan. Fran. Gutxi erabilia.*

JÁLGI (d). da-du aditza. Landare batek hazia berez barreiatu. • Echar una planta la simiente por sí sola. *Bedar txarrak, sasoiz ezpadie etaratzen, azixa jalgitzen dabe./ Garixa jalgi, baiña ez gaixuaaaitik; eldu dalako eta gero egualdi siku bat aillegatzen bada ba, bere kaskaratik ba sikatu ta jalgi. Don. Belar txarrez, gehienbat. **eztago garirik jalgitzen** esapidea. (Antzuola) "Inor zain ez dugunean edo presarik izateko arrazoirik ez dagoenean esan ohi da. Lehen garia jalgiz gero *Eon zaitte trankill, ezaitte jun, eztao garirik jalgitzen da*. Sin. umeik eztou laga negarrez etxian." (Lar Antz).*

JAMON EIÑ aditza. (Antzuola, Aramaio) Jaramon egin, kaso egin. *Ez naiz konturatzen berba diferenteik, bakizu, sekula etxat jamonik eiñ. (Lar Antz)./ Orri jamonik pez.*

JAN1. jan (a). du aditza. Comer.

Ik. **trípak játen. Egon lo ta jango dek me** esaera. "Azkenengo ibiltzen denak edo mugitzen denak ez du ezer izango; DEK esan zuen lekukoak." (Lar Antz). **Irixa adar da guzti jan** esaera. Gose handia denean esan ohi den esaera.

*Irixa adar da guzti jango neukek. **berbía jan** (b). esapidea. Agindutakoa bete ez. • Incumplir la palabra. Ezixozue ezer sinistu, berbia jaten zalia da ta. **jaixon paretak** esapidea. "Pertsona bat ekonomikoki gaizki dagoenean, eta etxea besterik geratzen ez zaionean, jendeak esaten du: <i>etzare ain gaizki be! Etxia beintzet badaukazu. </i>Etxearen nagusiak hau esanez erantzuten du: <i>jaixon paretak</i> Izan ere, etxeko hormek ez baitute jaten ematen." (Lar Antz). **jan-jan eiñ** (c).*

esapidea. Asko jan. Inoren etxean jaten denean ohitura dute adinekoek zera esateko despedidarakoan: *Ekarri eztou ezer eiñ, baiñ; a bagoiaz jan-jan eindda./ -Guk jan-jan eiñ, ezpanak garbittu eta aide. -Bueno, bueno, urranguan be etorri. Ik. **éntzun-éntzun eiñ. txitiak beste jan** (c). esapidea. Oso gutxi jan. *Gure amandriak txitia beste jaten dau aspaldixan. 2. jan (c). dio aditza. (lagunartekoa.) Irabazi kirolean. • Vencer en en deporte. *Espríñian jan zotsan karrera Perurenak./ Aurten be Atletixak baietz ligia jan. 3. jan (c). dio-du aditza. Gastar el dinero, estafar, quitar, privar... a alguien. *Soziuak zeuzkan diru guztiak jan jotsan./ Amar milloi jan i dotsa bankuai./ Iru egunian jaten zeban sueldua. 4. jan (c). du aditza. Gastar, desgastar, rebajar (con una lima, etc.). *Kajoia ezpada kabitzen, ertzak limiakin jan eta sartuko da./ Pieza oni oinddio milimetro bat jan bia jako. 5. jan, jana* (a). izena. Janaria. • Comida, alimento. *Jana ta erana izan ezkeron naikua dau. Sin. **játeko. On egin janak eta kalterik ez edanak** esaera. (Lar Antz). Jaterakoan probetxu ona opatzeko esan ohi dena.*****

JAN-TXÁKUR, jan-txakúrra (c). izena. Gorrón, parásito. Jatorriz: jan besterik egiten ez duten txakurrak. —Ze txakur klase dok au? —Au, jan-txakurra

JANÁLDI1. janaldi, janaldíxa (b). izena. Jate saioa. • Sesión de comida. *Atzo gaztaiñak erre giñuzen eta aze janaldíxa ein giñuan./ Orrek janaldi baten iru txuleta igual jate jittuk. 2. janaldi, janaldíxa* (b). izena. Desfalco. *Akordau zienerako egundoko janaldíxa eindda zeukan ofizinistiak./ Ori bankutik bota zeben janaldíxa ein zebalako. JANALDIXA EI Ik. **désflako.***

JANÁRIÑ (d). adberbioa. Gutxi janda. • Habiendo comido poco. *Gaur janariñ samar pasau dot eguna, estomagutik enabill ondo ta./ Orrek pe eztauka janariñ ibillitako itxuria.*

JANGÁRKA, jangarkía (d). adjektiboa. Jale txarra, mizkina. • Inapetente. *Jateko eskaxa danai esate jakok jangarkia, ume bat esate baterako. Klem. Sin. jangártsu. Ik. mízkiñ.*

JANGARKÁTU (d). da aditza. Volverse inapetente.

JANGÁRTSU, jangartsúa (d). adjektiboa. Inapetente. Sin. **jangárka**.

JANGÓIKO, jangoikúa (a). izena. Dios.

Jangoikua, bat eta bera naikua (c). esaera. **jangoikúa lagun** (c). Harridura adierazten duen esklamazioa. • Por el amor de Dios. *Au ipiñi erderaz da (tutik jakin gabe), erak e, jangoikua lagun, zelako barriak lurrian bueltaka. Aniz./Oiñ nola billauko juau guk atzera bidia? Illunduta ta, jangoikua lagun. Ba Zumarrara jun biako juau oiñez. Mertz. jangoikuágaittik!* (c). interjekzioa. Por el amor de Dios! *Gabian andrakumaik ez bakarrik jangoikuagaittik iñora e. Hil. jangoikuak aparta!* (c). interjekzioa. Harridura esapidea. *Arek pe eztauke erruki aundirik, jangoikuak aparta! jangoikuak pe eztaki* (b). esapidea. Asko. *Jangoikuak pe eztaki zenbat sufridu daben asunto orrekin. jangoikuan izenian!* (b). interjekzioa. Por el amor de Dios. *Limosnatxo bat Jangoikuan izenian.*

JANGOIKO TXIKI Ik. **búzkantz**.

JANGOIKUÁN ATZÁMAR, jangoikúan atzámarrak (d). izena. . JANGOIKUAN ATZAPAR.

Lonicera periclymenum. Madreselva. Belar bakarra hazi beharrean tortotan hazten da. Normalean, bide bazterretan, pareta zaharretan eta etxe inguruetan hazten da. Pluralean izendatzen da. Sin. Jesukriston atzapar (Os.), Amaberjiñian atzapar (Eib.).

JANGOIKUÁN KATU, jangoikuán katúa (d). izena. ZERUKO KATU, INFERNUKO KATU. Larva peluda de mariposa. *Zeruko katu esaten zaio Oñatin eta Eibarren, eta infernuko katu beste zenbait lekutan.*

JANÓNTZI1. janóntzi, janóntzixak (d). izena. Vajilla. *Sukaldeko janontzixak. Don.* Hala erantzun du Donatok sukaldeko tresnei nola deitzen zaien galdetuta. **2. janóntzi, janóntzixak** (d). izena. Abereek jateko ontziak, oiloenak batik bat. *Eranontzixak eta janontzixak garbittu biarrian gare.*

JANSAGAR Ik. **ságar**.

JÁNTZI1. jantzi (a). da-du aditza. Vestir(se). Ant. **erántzi**. **2. jantzi** (c). da aditza. Landare taldea indartu, botatako hazia erne eta hazi, bizarra indartu. • Prender con fuerza las simientes y plantas. También la barba. *Emuten zeban etzala ixa garirik erne baiña azkenian jantzi ein dda./ Enajuan esango, baiña Pistoi azkenian bizarra jantzi ein jakok.* Azken batean lurra edo aurpegia estali. **3. jantzi, jantzíxa** (a). izena. Vestido, vestimenta. *Oso jantzi dotoriak dauzka.* **4. jantzi, jantzíxa** (c). izena. Sostén, porvenir. *Dauken golfo pariakin jantzi ederra dauke./ Zuekin bajaok jantzixa.* JANTZI EDERRA EUKI, batik bat. Normalean zentzu negatiboan. Ez dagoela jantzirik, etorkizunik, alegia. **5. jantzi, jantzíxa** (c). adjektiboa. Jantzi batek ondo abrigatzen duenean edo itxurara dotorea denean "jantzixa" dela esan ohi da. • Se dice de la ropa que "viste"; porque abriga o porque es bonita a la vista, generalmente. *Txandarra izan arren oso jantzixa da./ Kamisetia, polittena be, ezta izaten alkondaria bezin jantzixa.* **6. jantzi, jantzíxa** (c). adjektiboa. Dakiena, kultura duena. •

Instruido, -a, culto, -a. *Basarritarra izan arren gizon jantzixa da.*

JÁRAIÑ1. jaraiñ (b). dio aditza. Jarein, jare egin. • Librar, dejar libre, soltar. *Beixei jaraittera noia./ Platerai eskutik jarain ddotsa naitta./ Txorixai jarain ddotsat.* ZERI jaraiñ. Oñatin eta Leitzen "jare eiñ," bi hitz dira: *Errezena zera dok eittia: jare. Bergaran "jare" soilik ez da esaten.***2. jaráiñ, jaráña** (d). adjektiboa. Eginbeharrak erraz uzten dituen, gauzak bere lekuan lagatzen ez dituen. • Dejado, -a. *Mutiko listua da baiña jaraiña./ Gauzak plast! erozein lekutan lagatzeittu; zela izan leike personia ain jaraiña.* Gutxi erabilia. *Lagia ere esaten da zentzu berdintsuaz.*

JARAMON lk. **jamon eiñ.**

JÁRDUN1. jardun (b). du aditza. Ari izan. • Ocuparse, estar haciendo algo. *Artajorran diardu./ Eurixa diardu./ Lanian niarduan.* Sintetikoa. NOR-NORK. **2. jardun, jardúna** (b). izena. Berriketa, hitz-jarioa. • Palabrería. *Orrek jarduna ugari baiña formalidade gutxi.* Sin. **barriketa. jardun txepel, jardun txepela** (c). esapidea. Ganora gutxiko berriketa. Sin. txepel-jardun.**jardún-bíar, jardún-bíarra** (c). Ganas de discutir. *Orrek eukitzen dau jardun-biarra.* Sin. jardunerako gogo.**jarduna ipiñi** (c). esapidea. Hizpidea, berbakizuna ipini. *Gaztetxorrek jarduna beintzat ipiñi dau errixan.* **jarduneráko gógo1. jarduneráko gogo, jarduneráko gogúa** (c). Ganas de discutir, de follón verbal. *Jesus, Maria ta Jose, ori da jardunerako gogua —edo jardun biarra— daukazuna.* **2. jarduneráko gogo, jarduneráko gogúa** (c). Berriketarako, hitz egiteko gogo. *Jardunerako gogo ederra eukitzen dau aldeko Pellok.***jardunían járdun** (c). esapidea. Hitz egiteagatik hitz egin. • Hablar por hablar. *Zuri jardunian jardutia gustatze jatzu./ —Autopistia gure etxe ondolik pasau biar i da —Orretxi esate jako jardunian jardun.*

JARDUN TXEPEL, jardun txepela (c). esapidea. Ganora gutxiko berriketa. Sin. txepel-jardun.

JARDÚN-BÍAR, jardún-bíarra (c). Ganas de discutir. *Orrek eukitzen dau jardun-biarra.* Sin. jardunerako gogo.

JARDÚNTSU, jarduntsúa (c). adjektiboa. Berriketosoa. • Hablador, -a. *Orren aitta be jarduntsu bat zuan.* Sin. **barriketalári, berbátsu.**

JARÉTXI (d). du aditza. JARÁTSI. Esnea jetzi. • Ordeñar. *Ni akordatzen nai ardixak jarexten ba, zortzi urtekin ero jaretxiko nittuan ardixak. Luis./ Ardixak buztana zetako; jarasteko be traba eitten dau atzian da beti traba eitten dotsa. Luis.* Sin. **eratxi, jatxi, batu.**

JARGOE lk. **jergóe, -i.**

JÁRIXO, járixua (b). izena. Escape (de un líquido, generalmente). *Uran tuberixiak jarixua dauka.* lk. **dárixola.**

JÁRLEKU, járlekua (b). izena. Eserlekua. • Asiento. *Festibalian etzeuan jarleku bat pe libre.*

JARRÁITTU (b). dio-du aditza. Seguir. *Zuk neri jarraittu, eztakizu bidia ta./ Nik lanian jarraittukot.* Ant. **segi(du).**

JÁRRI1. jarri (a). du aditza. Ipini. Poner, colocar. *Eztakigu armaixua nun jarri.* Sin. **ipiñi. árrautzia járri** (c). du aditza. Errun. *Egunian arrautzia jartzen dabe gure oilluak.* **2. jarri** (a). da aditza. Eseri, jesarri. • Sentarse. *Jarri, jarri, mesedez.* **3. jarri** (c). da aditza. Ohitu. • Acostumbrarse. *Asieran gaizki ibilli nitzan, baiña edozertara jartzen da bat./ Etzan sekula kartzelara jarri.* lk. **óittu. 4. jarri** (c).

da aditza. Landare batek lurrari heldu. • Arraigar una planta. *Lenguan sartutako letxuga-landarak ez tie jarri./ Sartu nittuan iru arbolatetik bat bakarrik jarri da.* Sin. **sustarra artu. 5. jarri** (c). da aditza. Ugaritu. *Dana sorgiña zan orduan. Personak zien, tontolapiko pilla bat. Da gero pistolia jarri zanian dana ziero amendau. Mertz./ Aspaldixan polizia jarri da bedarran letxe.*

JÁS01. jaso (a). du aditza. Levantar, subir algo. *Butaneruak bonbonia jaso dau.* **2. jaso** (c). du aditza. Eraiki. (Erreparatu adibideari). • Construir, levantar la estructura. *Etxe bat ein ein ddou, o jaso ein ddou. Jaso esaten da ba estrutura gora jasotzen darian; “etxia ein ddou”; konpleto. Etxiak jasota dauzka paretak, baiña etxia eitteke dao artian, barruak eitteke dauzka, atiak ero. Don.* **3. jaso** (c). du aditza. Laudatu. • Ensalzar. *Retegi zeruraino jaso dabe./ Abade barrixa eztakitt noraino jaso daben be.* NORAI Sin. **abónau. 4. jaso** (c). du aditza. Montar nata, clara de huevo, etc. *Azucarra bota eta tenedoriakin erainaz-erainaz jasotzen da natia.* **5. jaso** (c). du aditza. Ulertu. *Eztotsut jaso.* **6. jaso** (c). du aditza. Eguraldiak hobera egin. *Gaur jasoko ete jok?* **7. jaso** lk. **etxia jaso. 8. jaso, jasúa** (c). adjektiboa. Itxura onekoa. • De buen porte. *Pantxika oinddio andra jasua dago.* Adinekoez ia bakarrik. Ezezkoetan, batik bat: **jaso-jasua ez egon** (c). esapidea. Narrastua, itxura txarrekoa egon. *Obrak eitten jiarduek eta etxaukek etxe inguru jaso-jasua.*

JÁSOTAKO, jasotakua (d). izena. Hala deitzen zaio familia batean jaio eta, gurasoak hil edo familia handiegia izan mantentzeko, edo beste edozergatik beste familia batean seme edo alabatzat hartua izan denari. *Errekaldeko Joxe jasotakua da. Bergako kalekua da izatez, baiña txiki-txikittatik bizi da Errekalden da eztabe pentsatzen familixakua eztanik pe.*

JASOTÁSUN, jasotasúna (c). izena. JAXOTASUN. Jaso izatearen nolakotasuna. • Limpieza, pulcritud. *Etxe artan eztago jasotasun aundirik./ Banajoiak, ia ganbaran jasotasun puxkat ipintzen doten.* Etxeari buruz gehienetan. lk. **kuixidáde, jaso.**

JATAILLE JATEILLE.1. jataille, jataillia (c). izena. Jalea, jaten duena. *Ni ez naiz ola oso gazura jataillia. (Lar Antz).* **2. jataille, jataillia** (c). izena. Jatuna. *Ni baino jateille oberik ezpalitz...*

JÁTEKO, jatekua (b). izena. Jakia, jana. • Comida. *Eroski-n erosten dabe jatekua.* lk. **jan.**

JÁTOR, jatorra (b). adjektiboa. Pertsona ona eta baliozkoa. • Majo, -a. *Migel oso persona jatorra da.* Adinekoei ez zaie asko entzuten.

JATÓRDU1. jatordu, jatordua (b). izena. Mahaian eserita egiten den janaldia. • Comida. *Egunian iru jatordu eitten dittut: armozua, bazkaixa ta afaixa.* Sin. **otórdu. 2. jatordu, jatordua** (c). izena. Jateko ordua, ekintza. • Momento, hora, de comer. *Umiak! jatorduan ezta kantatzen! Jatorduan eztot ardaurik eraten.*

JÁTORRI, jatorrixa (c). izena. Ascendencia, origen. *Aramaixon dago gure jatorrixa./ Gu bixok jatorri berdinekuak gaittuk.* Era honetako esaldiak ere entzun dizkiot amari: Extremadurako jatorrixak asko die Bergaran. **játorriz** (c). izena. De origen, originariamente. *Familixa ori jatorriz naparra da.*

JÁTORRIZKO, jatorrizkua (d). izenlaguna. Original. *Bergako kaletako jatorrizko azpixa, galtzaria, asfaltuakin tapauta dago./ Jatorrizko ermittia erre ein zan; oingua barrixa da.*

JÁTUN, jatúna (b). adjektiboa. Comilón, -a. *Txomin jatun aparta zuan.* lk. **tripóso, -a.**

JÁTXI1. jatxi (a). da aditza. Jaitsi. • Bajar. *Jatxi arbolatik, ume.* Sin. **bajau. 2. jatxi** (b). du aditza. Esnea eraitsi. • Ordeñar. *Oinddio esniak jatxi barik dare.* Sin. **jarétxi, eratxi, batu.**

JATXÍERA, jatxíeria (a). izena. JETXIERA. Bajada.

JÁUN, jáuna (c). izena. Señor. *Beti jaun oittutakua da ta oiñ gorrixak ikusi biar. bai jauna!* (b). interjekzioa. Si señor. *Egun edarra pasau juau. Bai jauna! jáun da jábe* (b). esapidea. Dueño y señor. *Urtetan izan zan aiuntamentuko jaun da jabe.*

JAUNKE (Aramaio) Zaunka. *Guk* Sin. **záunka**.

JÁUNTXO, jáuntxua (b). izena. Cacique. *Errittan eztago len beste jauntxo./ Len iru ero lau jauntxon esku egote zan errixa.*

JAUNTXOKERÍXA, jauntxokerixía (c). izena. Cacicada, caciquería. *Naiz ta arrazoirik ez euki eingotsu jauntxokerixan bat./ Jauntxokerixara oittutakua ezin izan alkate ona.*

JAURRERA lk. **jeurt!**

JAURT

JÁURTI (b). du aditza. Indarrez bota. • Lanzar, arrojar. *Arrixa jaurti jao mutiko batek./ Emendik orra bada gauza bat, “botaidak ona”; prenda bat ero; urriñera baldin bada zeoze, ”jaurti”; Don. Gaur egun jaurti zein bota entzun ohi da zentzu berarekin, baina adinekoentzat ez da berdina.***jáurtika** (c). adberbioa. Botaka, jaurtitzeko beste, ugari. • Mucho, a espuestas. *Aurten sagarra jaurtika egon da./ Orrek krisisa? Orrek dirua jaurtika dauka.* Sin. **bótaka**.

JÁUSI1. jausi (a). da aditza. Erori. • Caer. *Obetik jausi naiz.* Irudizko zentzuan ere bai. Zer moduz jausten jatzu gizon ori? Hilarik Angiolilloren urkamendia kontatzerakoan zera dio. Etxian lagatzen boste neuk pe jun biot pa. Da etxian esan i otxen e, «Kontuz ibilli ari gero, batzui ez i jakone ondo jausten da”; (AA BergEus, 330. o.). lk. **berriz jausi, jausi barik!** **2. jausi** aditza. Caer preso. *Da antxe jausi zan a, kauen dies!, ia gerrie akabaute ta.* (Orm Aram) **3. jausi, jausíxa** (c). adjektiboa. Decaído, -a. *Bisitatzen izan naiz da oso jausíxa topau dot./ Oso jausíxa dago separau zanetik.*

JAUSI BARIK! (c). esapidea. Kontuz!, ea erortzen zaren! Hori esaten zaio norberaren aurrean erortzeko arriskuan dagoenari. Labandu barik!, ere bai labandu berri denari, eta abar.

JAXO lk. **jaso**.

JAXOTASUN lk. **jasotásun**.

JAZBAN, jazbána (c). izena. JAZMÁN. "Jazz-band"-en euskarapena. Sasofoi, eskusoinu eta bateriaz (gehienetan) osatutako musika taldea, gerra ostean erromerietan jotzen zuena. • Grupo musical, compuesto generalmente de saxofón, acordeón y batería, muy de moda en las romerías de cierto rango en la posguerra. *Uberako San Paulotan erromeixa edarra eitten zuan jazbanakin./ Altos Hornosen be jazbana egoten zuan.* Mugatu singularrean, batik bat.

JAZKÉRA, jazkería (b). izena. Vestimenta, modo de vestirse. *Jazkeriagatik ezaun zeban etzala emengua.*

JAZMAN lk. **jazban**.

JAZTÉTXE, jztetxía (c). izena. "Baserritarrek kalean arropak aldatzeko izaten zuten etxea.

Bazterretxe jaztetxia zan." (Lar Antz)

JEL, jela (d). izena. Hala deitzen omen zitzaion gerra aurretik lauburuari. *Idurixoko eskillaran jeuan pintaute jela. Klem.* Etim.: JEL sigla(Jaungoikoa eta legezarrak), EAJren lema.

JÉMEZE, jémezia (d). izena. GMC kamioi famatua, oso ugaria gure bideetan 1945-70 bitarte horretan. *Jemeziak piñutarako erabiltze zien geixenbat./ Kamioi gogorra zan Jemezia.* Munduko II. Gerratean ibilitakoak omen gehienak.

JENERÁLA (c). adberbioa. (lagunartekoa.) Gehientsua, normalena. • La mayoría, lo general. *Kataluñan ardao klase asko dago baiña jenerala gorrixa./ Balnearixuan daneko jentia zeuan baiña jenerala Madrill aldekoa.*

JENERALÍAN (b). adberbioa. ENJENÉRAL, ENJENERALMENTE . Gehienetan. Generalmente, las más de las veces. *Gu domeketan jeneralian Durangora joaten ga./ Nik jeneralian eztot armozatzen./ Santa Lutzia egunian enjeneral eurixa eitte jok/ Aitta neria enjeneralmente goizeko mezetara. Hil.*

Sin. **géixenetan, normalían.**

JÉNERO1. jénero, jénerua (b). izena. Kontsumitu eta saldu daitekeen edozer gauza. • Artículo, mercancía. *Bazan gaur makiña bat jenero plazan./ Gerraostian etzeuan jeneroik diruakin be./ Bodarako erregalua. Oiñ beste gauza batzuk erregalau, baiña orduan jenerua erregalo. Gero urrengo egunian bodia ta. Ben.* **2. jénero, jénerua** (c). izena. Mota, suerte. • Clase. *Iru soiñu jenero be egoten zien. Dultziniã be bai. Sot. Orain klase gehiago.*

JÉNIXO1. jénixo, jénixua (a). izena. Genio. *Jenixo txarrekoa da oso.* **2. jénixo, jénixua** (c). izena. Carácter, tendencia (?). *Oixe da orren jenixua bai, tta...*

JÉNTE, jentía (a). izena. JENDE. Jendea. • Gente. Beti singularrean. Ik. **napar-jénte. jenté áurrerako** (c). Jendearekin tratatzeko, publikoan hitz egiteko, etab. *Langillia da oso, baiña eztau balio jente aurrerako.* **jenté áurrian** (c). *Etxakon bape gustau ori jente aurrian esatia.* **jentián bistán** (b). esapidea. A la vista de todos. *Ori igual jentian bistan jartzen da narrugorri.* Ik. **gazte-jénte, napar-jénte.**

JENTÉLAJE, jentélajia (b). izena. JENTÍLLAJE. Gentuza. *Ze jentelaje bizi dok ire auzuan?/ Kontuz ibilli ari an dagon jentelajiakín.*

JENTÉTSU, jentetsúa (c). adjektiboa. Jende askokoa. • Multitudinario. *Oso entierru jentetsua izan da.*

JÉNTETZA, jéntetzia (c). izena. Jendetza. *Teatro Realian, aura zan jentetzia. Mertz.*

JÉNTILL, jentilla(k) izena. Gentiles, personajes de la mitología. *Jéntillak? Ez; gure aitta-zanak kontatzen jittuan jentillen ipuiñak, baiña beste zerik ez. Klem.* Zenbait lekutan, *Jentillak baiño txarragoak zerate gisako esaldiak esan ohi diete adinekoek gazteei, fedegabe, libertino zentzuan.* Ik. **kristáu.**

JENTILLAJE Ik. **jentélaje.**

JERGÓE, -I, jergóia (c). izena. JARGOE. Jergón. *Koltxoia lanazkua izaten zuan baiña artamalutazkua jergoia. Klem.* Sin. **lastai.**

JERTSE, **jertsía** (a). JERSE. Jersey.

JESÚITTA1. jesúitta, jesúittia (c). izena. Jesuita. **2. jesúitta, jesúittia** (c). adjektiboa. Hizketan habila. Zentzu despektibo samarra du: hizketan habila, bainazuria edo faltsu samarra. *Aspalditik ezautzen juau. Jesuitta majua dok aura.*

JESÚKRISTON, jesúkristona (b). izenlaguna. (lagunartekoa.) Kristorena, handia, ederra. • Grande, enorme. *Eskilaratatik jausi nok eta jesukriston zartaria artu juat./ Jesukriston kotxiakin ikusi juat Andres./ Atzo jesukristona arrapau giñuan Ondarruan.* **JESUKRISTONAK ESAN, ENTZUN, EI Sin. kríston.**

JESUKRISTON ATZAPAR lk. **jangoikuán atzámar.**

JESÚS! (c). interjekzioa. **JESÉUS.** Harridura eta aldi berean, sarri, zerbaiti ondo ez iriztea adierazten duen interjekzioa. • *Jesus! Ezidazu disgustoik emon./ Jeseus, jeseus! Zenbat astolan einddakuak gan...* **Jesus, maria ta jose, beti jan da beti gose** esaera. (Lar Antz). **jesus baten** (c). adberbioa. Ixtant batean. *Jesus baten ein jittuan deberiak./ Triatletak jesus baten jazten da erazten dittue erropak.* **jesús maría ta José** (b). Harridura eta aldi berean, sarri, zerbaiti ondo ez iriztea adierazten duen interjekzioa. • *-Julienek akzidentxon bat izen dau.* Gure lagun batek, txiste moduan, *Jesus mariau ta jausi, dino.* **jesus, jesus, jesus!** (c). interjekzioa. Lamentazio esapidea. *Jesus, jesus, jesus!, au be neri pasau biar.*

JESUSÉN BÍOTZ, Jesusén Biótza (c). izen propioa. El Sagrado Corazón. *Jesusen Biotzan deboziñúa modan egon zan gure mutikotan.*

JESÚS-KÁTILLU, jesús-kátillua (d). izena. Antziñako katilu handia, lurrezkoa. Kanpoa buztin kolorekoa eta barrua zuria. Sin. **fraille-kátillu.**

JETXIERA lk. **jatxiera.**

JEURT! JAURT! .1. jeurt!, jaurt! (d). interjekzioa. Buelta! Labrantzan behi edo idiekin ari den itzulariak uztarrikoei egiten dien oihua bazterrerera heltzean, buelta har dezaten. *O! irixak, jeurt!!* . Ildoan sar daitezen ere esaten zaiela diosku beste lekuko batek. Honen arabera, **JAURRERA ETORRI:** arrastora, ildora etorri. **2. jeurt, jeurta** (d). izena. Buelta. *Jeurta edarreko solua dela esaten zen Uberan, buelta egiteko toki egokia duten soroez.*

JÍBA, jíbia (b). izena. Joroba, jiba. Sin. **kórkoba, kórkotx.**

JIBIXA, jibixia "Jibión.

Jibixa txiki-txikixak daukaguz afarittarako." (SB Eibetno).

JIBÓSO, jibosúa (c). adjektiboa. Jorobado, giboso. Sin. **kórkobadun, korkótx.**

JÍGANTE, jígantiak (a). izena. Festetako panpin handiak. • Gigantes. *Zazpiretan jígantiak eta kabezuduak.*

JIKARA lk. **kíkara.**

JÍLGERO, jílgerua (b). izena. Carduelis carduelis. Jilguero. Sin. **fíringalo, kardántxillo.**

JINBEL lk. **gínbel**.

JÍNETA, **jínetia** (d). izena. KATAJINETA. Basakatuaren tankerako animalia. • Jineta. Sin. frantses-katu (Oñ.), katapardo (Eib.).

JIPÓI1. **jipói**, **jipóia** izena. (Oñati) "El grano de trigo con su envoltorio, que se golpea, que se da al ganado." (Izag Antz).**2. jipóia emon** aditza. (Antzuola) "Azotar." (Izag <i>Antz.</i>

JÍRA1. **jíra**, **jíria** (b). izena. Fundamento, situación; poco o malo, generalmente. *Etxe artako jiria ikustiak negargurfa emote juan./ Diru barik, urriñ, kotxia aberixauta... Aura zuan jiria! Oinddio kotxia konpondu barik? Baiña ze jira dok au?/ Jira eskasa. San Inazio egunian guri etxakun gustau ango jiria. Fran.(AA BergEus, 346. o.). **áú ézta jíria!** (b). esapidea. Esto no es fundamento. *Ordubatak eta oinddio jaiki barik. Au ezta jiria!* **2. jíra**, **jíria** (c). izena. Lana, ardura. *Berak bakarrik eitteittu etxeko jira guztiak./ Ofizinistiak daroia taillerreko jira guztia./ Neska sasokua be bazan, da arek sukaldia arenau ero, etxeko jiria eiñ.* Hil./ *Gizonak ezeben eitten orduan ezebe etxeko jiran. Mertz. NONGO jira. Etxeko jiria, batik bat. Goiko bi adieretan oso erabilia da hitza. Hiztegietan ez da agertu ohi.* lk. **ganáu-jíra**. **3. jíra**, **jíria** (d). izena. Entorno, alrededor. *Etxe-jira guztia loraz beteta dauke. Gutxi erabilia; goikoaren modukoetan bakarrik. JÍRAN. Inguruan, bueltan. Sukaldian erdi-erdixan sua, da jiran, beian e, zulua, olako bat altura; danak jarteko, su aren jiran jarlekuak. Hil.* lk. **errubéra**, **súpill**, **buélta**. **jíra ta búelta1. jira ta buelta** (b). adberbioa. Dando vueltas y más vueltas. *Dantzan ibili giñan jira ta buelta gau guztia./ Or ibili jakun jira ta buelta nai zebana konsegidu zeban arte.* **2. jira ta buelta** (c). Modu batera edo bestera, azken batean. *Azkenian, jira ta buelta, diru mordua galdu zebe juizian./ Badakitt ze pasau bia daben; jira ta buelta, azkenian neuk ein biakoittut lan guztiak.* lk. **jirámira**, **buélta**.*

JIRÁMIRA, **jirámirak** (d). izena. Jirabira, jira eta bueltak. *Txokolatia artu ta jiramira batzuk iñ an eta bera. Sot. (AA BergEus). la galdua.*

JIRÁU1. **jirau** (b). da aditza. Moldatu, konpondu. • Arreglarse, amoldarse. *Eztakitt ze moduz jirauko naizen bakarrik./ Alaxe, orduan ederki jiratzen giñan. Sot.* lk. **manejau**, **moldau**, **arréglau**, **konpondu**. **2. jiráu** (b). du aditza. Lortu, eskuratu. • Conseguir. *Nundik andik jirau bizikleta bat eta goazen./ I, nundik jirau dok txaketa ori?* Sin. **zuzendu**.

JO JOTEN, Elosun izan ezik (JOTZEN).**1. jo** (a). du aditza. Pegar. *Ez izu jo umeik.* lk. **artúa jo. jo batera eta jo bestera ibili** (c). esapidea. Noraezean edo galduta ibili. *Basuan galduta ibili giñustan, jo batera eta jo bestera.* **joka** (b). adberbioa. Pegando. *Beti alkar joka dabitz.* **jota1. jota** (c). adberbioa. Oso nekatuta. *Jota joiak Lejarreta./ Ziero jota etorri zien mendittik.* Goian ikusten dugunez, JOTA JATOK, JOTA JOIAK... esan ohi da, adibidez, karrerista bat nekatuta doala ikusten denean, ia hizjoku bat eginez.**2. jota** (c). adberbioa. Burutik jota, zoratuta. *Ori eitteko ziero jota egon biok.***jota garbi** (c). Hilda. *Bueltakunen motorduna jota garbi.***jóta kéia** (c). esapidea. Jota sua, ahalegin osoz. *Lanian diardu jota keia.* lk. **dáleketepego. jótera ein** (d). esapidea. Jotzeko kinada egin, edo joteko intentzioa edo zaletasuna izan. Ben.k etxean izan zuen idi batez zera dio: *Beste bat euki giñuan joterá eitten ebana.* **2. jo** (c). du aditza. Calcular. *Asko jota, ogei urte eukikoittu.* Tambián, según el contexto, hacer una oferta. Behetik jo, goitik jo, gehixenera jota... (Ikus ondorengoak)**beetik jo** aditza. Calcular u ofrecer por lo bajo. *Orrek, beetik jota, eun kilo izangoittu./ Ik beetik jo, al dan gutxien eskeiñigéixenera jota (b). esapidea. A lo más. *Amar milla duro irabazikoittu, geixenera jota.***góittik jo** esapidea. Calcular u ofrecer por lo alto. *Eskatzerakoan goittik jo bia da, eta eskeintzerakuan beetik.* lk. **erdíra jo. jo daigun** (b). esapidea. Pentsa dezagun, esate baterako. *Jo daigun iñor ez datorrela itzaldira. Zer egingo dogu?* **3. jo** (a). du aditza. Tocar. Tambián música. *Atia jo dabe./ Seirak jo dittue./ Tronpetia joten dau Peruk./ Kanpaiak joten diardue./ Txistua**

joten pasau da goiz guztia. **4. jo** (c). dio aditza. Narrua jo. • Follar. *Pagopian jo jotsan./ Oinddio ez i jotsak jo nobixiai. Harkoi samarra.* Sin. **narrútan eiñ, txórtan eiñ, txortía jo, narrúa jo.** **5. jo** (b). du aditza. Norabidea hartu. • Tomar una dirección, dirigirse. *Ezkerretara jo giñuan./ Sasi artian aurrera jo zeбен./ Gorutz jo dabe.* (NORA edo NORUTZ jo). **góra jo** (c). esapidea. Recurrir a una instancia superior, apelar. *Asuntua errixan ezpou konpontzen gora joko dou.* **6. jo** (b). du aditza. Edan. • Beber. *Orrek egunero ogei txikito jokoittu./ Txanpan botillia jo najuan neuk bakarrik.* **7. jo** (d). aditza. Eho. • Tejer. *Ta Bergaran be berdin esaten da, garixa jo edo telia jo.* Josu. Ik. **eo.**

JOÁLDI, joaldíxa (c). izena. Jotzen den aldi bakoitza. *Egan-ek iru joaldi ein zittuan.*

JOÁN aditza. JUN, JUAN, FAN, FUAN, FUEN. JUN da erabiliena Bergara gehiengan. JUÁN edo JOÁN esaten da Ub.-Ang. aldean, eta kale aldean ere bai puxka bat. FAN ere bai Angiozar aldera. *Nik ezer falta baneban enintzan fango bestegana billa, e. Ni San Antonioana. Fran.1. joan* (a). da aditza. Ir.

Joan da joan, da bertan (c). esaera. <i>Nun izan za?</i> galderari erantzuteko ihesbidea. *Nun izan za? -Joan da joan, da bertan.***jun zaittez etorritako bidetik** esapidea. "Nor bait bidaltzen denean esaten da." (Lar <i>Antz.</i>.</p></div><div data-bbox="46 347 923 403" data-label="Text"><p>ze jóiak pa? (c). esapidea. Agur formula. Zuka, ZE DOIA BA ere bai, baina gutxiago. 2. joan (c). da aditza. (eufemismoa.) Hil. • Eufemismo de morir. <i>Aita Barandiaran joan jaku./ Badakizu ba, gizona be joan jatan da...</i> NOR-NORI, batik bat. 3. joan Ik. bizar-joan, ille-joan.</p></div><div data-bbox="46 417 920 486" data-label="Text"><p>JOANÁLDI1. joanaldi (b). izena. Ibilaldia. Enfasidun esaldietan erabilirik, ibilaldi luzea. <i>Okerreko bidetik joanaldixa ein giñuan./ Badakik zelako joanaldixa dagon Osintxutik Elusura?</i> <i>Guretik zuenera joanaldixa dago.</i> 2. joanaldi (c). izena. Joaten den aldi bakoitza. <i>Irugarren joanaldixan etara zeban karneta./ Oiñezkero dozena bat joanaldi eingo zotsan medikuai.</i></p></div><div data-bbox="46 501 920 572" data-label="Text"><p>JOÁN DAN1. joan dan (b). Iragan den. • El pasado <i>Joan dan illian izan zien eleziñuak./ Medikua ikusi barik zeuan joan dan urterarte.</i> Goiko testuinguruetan <i>joan zan ere bai.</i> 2. joan dan (b). Azkenengo, iragandako. <i>Eztot ikusi joan dan iru urtian.</i>joan daneko (c). Azkenengo. <i>Ointxe, joan daneko illebeta bat ero. Fran.</i></p></div><div data-bbox="46 588 943 698" data-label="Text"><p>JOAN-ETÓRRI1. joan-etorri, joan-etorríxa (c). izena. Joan eta etorriko bidaia. • Viaje de ida y vuelta. <i>Beste joan-etorri bat eta gaurkoz naikua da (labraketan).</i> <i>Zenbat kostatzen da Donostiako joan-etorríxa?</i> <i>Joan da etorri ere entzuten da. Makiña bat joan da etorri ein ddau Mondrauetik.</i> Sin. atzéra-áurrera. 2. joan-etorri, joan-etorríxa (c). izena. Jende edo ibilgailu mugimendua. <i>Jeseus, kale orretan egoten da joan-etorríxa./ Saldu eztakitt ze eingo daben, baiña egundoko joan-etorríxa dauke.</i> Sin. atzéra-áurrera.</p></div><div data-bbox="46 713 941 773" data-label="Text"><p>JODÉ! (b). interjekzioa. (arrunkeria.) JOÉ, JOLÉ, JOLÍN, JOPÉ, JOPELAS. Haserrealdian esan ohi den interjekzioa. <i>Joder! Jode! kendu paretik! Eztotela nai, jode!</i> . Basto samarra da JODjoéte trés (d). interjekzioa. (arrunkeria.) Izurrai, izurra hadi. <i>Mosura ondo berba eiñ baiña gero joete tres.</i></p></div><div data-bbox="46 803 921 840" data-label="Text"><p>JOÉRA, joería (c). izena. Jokera, zaletasuna. • Tendencia. <i>Beixak sagastirako joeria artu dabe./ Bera PNVkua da, baiña lagunak beste joera batekuak die.</i> Ik. jokéra.</p></div><div data-bbox="46 854 897 890" data-label="Text"><p>JOKABÍDE, jokabidía (c). izena. Jokaera, portaera. • Actuación, comportamiento. <i>Etxat bape gustau zure jokabidia.</i></p></div><div data-bbox="46 905 267 925" data-label="Text"><p>JOKALARI Ik. jokulári.</p></div></div>

JOKÁTU1. jokátu (a). du aditza. Jugar. *Gaur ederki jokatu dau Zezeagak./ Jokatukou kartetan?* Ik. **jolas eiñ**. **2. jokatu** (a). du aditza. Apostar. *Ogei milla duro jokatu zittuan Retegiñ alde./ Nai dozuna jokaturatsut.* **3. jokatu** (b). du aditza. Obrar, actuar. *Jefiak eztau garbi jokatu langiliekin./ Aiuntamentuak beste modu batera jokatu bia zeban auzo-alkatien kontuan.*

JOKÉRA, jokería (c). izena. Joera. • Tendencia, sobre todo a ir a determinados lugares. *Elgetarrak Eibarrerako jokeria dauke./ Arando tabernarako jokera aundixa dauka Inaziok. Joera eta jokera, biak entzun daitezke, testuinguru berdintsuetan.* Ik. **joéra**.

JÓKU, -O, jokúa (b). izena. Juego. Bere esanahi guztietan. Ez bada zehazten, karta-jokoa ulertzen da, edota, testuinguruagatik, diru-apostua. *Gurasuetatik puxkat ia jabe inddakuak, pa, arek jokora./ Jokoko diruak, kandelian diruak. Jokoko baratua, ta epa. Hil. Jokua ezta errenta, obe kapoia erreta* (d). esaera. Jokuaren kontrako esaera. *Jokua ezta errenta, obe kapoia erreta.***jokúan** (b). adberbioa. A cartas. *Urtero eitten dou jokuan Gabonetan./ Jokuan diardue jota sua.*

JOKULÁRI JOKALARI.1. jokulari, jokularíxa (b). izena. Jugador de cartas. *Jokulari amorratua da Antoni./ Egundo ez naiz izan jokalarixa. (SM Zirik).***2. jokulari, jokularíxa** (b). izena. Frontoian, idi-probetan etab. dirua jokatu zalea. • Aficionado a las apuestas. *Jokularixa danak bajakik kubritzen.*

JOKÚ-PÁLANKA, jokú-pálankia (d). izena. Palanka-jokoan jaurtitzen zen burdinazko barra. Ik. **palánka-jóku**.

JÓLAS, jolása (a). izena. Diversión, recreo, deporte, juego. *Jolasa besterik eztaukazue zuek. Jokatu galtzaileak eta irabazleak daudenean egiten da (fubolean, pelotan, kartetan...) eta jolas eiñ edo jolastu, ostera, lehiaketarik ez denean (soka-saltoan, bale-baleka, itxu-itxuka...).* Adinekoek ia inoiz ez darabilte **jolastu** hitza, **jolas eiñ** edo **jolasian ibilli** baizik. **jolas eiñ** (a). du aditza. Jugar a un juego no competitivo. *Oin jolas eiñ, da gero lanera. jolaseráko gógo, jolaseráko gogúa1. jolaserako gogo, jolaserako gogua (b). Ganas de jugar. *Gaur umiak ez dauke jolaserako gogoik.* **2. jolaserako gogo, jolaserako gogúa** (c). Amodio edo sexu jolaserako gogoa. *Zer, neska, jolaserako goguakin, ala? .jolasian ibilli, járdun* (a). Jugar. *Jolasian dabitx umiak.**

JOLASÁLDI, jolasaldíxa (b). izena. Jolas saioa. *Zelako jolasaldixa ein ddaben alkarrekin neska-mutikuak.*

JOLASGÚRA, jolasguría (c). izena. Jolaserako gogoa. *Katu onek dauka jolasguria!*

JOLASTU (a). du aditza. Jugar a un juego no competitivo. *Jolastukou sokasaltuan?* Adinekoek gutxi erabilia. Ik. **jólas**.

JOLÍN! JOLÉ!, JOPÉ!, JOPELAS! . Ik. **jodé!**

JÓÑO! (c). interjekzioa. (eufemismoa.) Koño!-ren eufemismoa. *Parian da, geratu ta: Joño, Sabastien, joño Sabastien. Ez zindduazen ezautzen. Hil.*

JÓRNAL, jornála (c). izena. Soldata. • Salario; antiguamente, paga de un día; ahora, de un mes. *Sasoi artan durua zuan eguneko jornala./ Jornal ona irabaziko dau orrek. Sin. egun-sari.* Ik.

kíntzena. jornalían (c). adberbioa. Egunean hainbesteko bat irabaziz. • Al jornal. *Akordatzen aiz zela ibilli giñan fabrikan jornalían?*

JORNALÉRO1. jornalero, jornaloría (c). izena. Soldata baten truke beste baserri batean lan

egiten duena, eta normalean bere etxera erretiratzeko dena. • **Jornalero**. *Markiko Tomas jornalero ibiltzen zan.* **2. jornalero, jornalera** (c). izena. Adineko askok langile zentzuan darabil. • Asalariado, para muchas personas mayores. *Eun jornalerotik gora dabitz fabrika orretan.*

JORNARA**1. jornara, jornaia** (c). izena. Jornada. Burdikada, normalean, baina baita astokada, bizkarkada, etab. • Se dice de cada carga que se acarrea tanto en el carro, como en burro, como al hombro. *Atzo iru jornara garo ekarri giñuzen./ Zelaittik jornaia natorrela astua ipursaltoka asi jatan.* **2. jornara, jornaia** (c). izena. Inoiz mozkorragatik ere entzun izan da. *Atzo jornara edarra karriau giñuan.*

JÓRRA, jorra (c). izena. Jorraketa lana. • Escardadura, trabajo de escarda. *Laster datoz arbi-jorrak./ Jorria lan gogorra da bixkarrerako.* Ik. **jorraketa, jorran** (c). Jorraketan. Escardando *Ama ta Julian jorran dabitz./ Patata-jorran pasau dou atsaldia.* Ik. **potrojorra, titijorra**.

JÓRRAI, jorraia (c). izena. Jorrarako aitzur txikia. • Escardillo, azada pequeña. *Gari jorrarako kerten luziak ibiltzen zittuan; oiñ, landarak sartzeko kerten-motza. Klem.*

JORRÁKETA, jorraketa (c). izena. Trabajo de escarda. *Laster datoz jorraketak. Jorra eta jorraketa Sin. gisa erabiltzen dira. Dena dela, hitz konposatu gisa lehena gehiago entzuten da: patata-jorra, arto-jorra, eta soilik esaten denean, bigarrena.* **jorraketan** (c). adberbioa. Jorran. • Escardando. *Jorraketan izurrau neban gerrixa. Sin. jorran.*

JORRALDI, jorraldia (c). izena. Jorratzen den aldi bakoitza. *Artuak bi jorraldi biaittu.*

JORRÁTU**1. jorratu** (b). du aditza. Ortuan edo soroan landareei aitzurra pasatu. • Escardar. *Patatak jorratu biarrian dare.* **atzia jorratzen ibilli** (c). esapidea. Norbaitez gaizki esaten jardun.**2. jorratu** (c). du aditza. Diruak gastatu. • Gastar dinero. *San Fermiñetan illabeteko sueldua jorratu giñuan./ Emuixok gure mutikuai milla pezetakua ta laster jorratuko jok.*

JORRÁTXUR, jorratxurra (b). izena. Jorrarako aitzur txikia. **JORRÁTXUR TXIKI**xa: Garia jorratzeko erabiltzen den aitzur txikia. Sin. **jorraia**.

JOSÉPETAKO ZELÁI, Josépetako Zeláia (c). toponimoa. **JOSÉPETAKO ZELAI**. Josafat-eko zelaia. Tradizioak dio han bilduko garela denok azken judizio egunean. Askotan entzun dugu hau txikitan. *Etxakixau urrengo Josepetako zelaian ero nun juntauko gan.* Erdi brometan gehienetan. Pinu sartuta ote dagoen zurrumurrua ere badabil.

JÓSI**1. josi** (a). du aditza. Coser.

potrojosixa eiñ (c). esapidea. (Osintxu) Joscara baldarra egin. *Ori don potrojosixa egin donana.* **2. josi** (a). du aditza. Iltzea sartu. • Clavar. *Aura, teillatuan dabillenak ra, ra, ra!, josi goittik bera, ta ia está. Martin.*

JOSKIÑ Ik. **jóstun**.

JOSKÚRA, joskuria (c). izena. Costura. *Prakak joskuratik apurtu jako./ Joskuriak min emuten dost./ Oso joskura makalekuak die.*

JOSTARRATZ izena. Ik. **jostórratz**.

JOSTARRI, **jostarrixa** izena. "Telak markatzeko erabiltzen zen harria." (Lar <i>Antz</i>)

JÓSTEKO MÁKINA, **jósteko mákinia** (b). izena. JOSTEKO MAKIÑA. Máquina de coser. *Alfa eta Sigma josteko makinak.*

JOSTÓRRATZ, **jostórratza** (b). izena. JOSTÁRRATZA. Aguja de coser. *Jostorratza sartu jat bietz puntan.* JOSTEztan **belakuan lurrian dagon jostarraza billauko** esaera. "Pertsona tentearengatik edo harroarengatik esaten da." (Lar Antz).

JÓSTUN, **jostúna** (b). izena. JOSKIÑ (LEIN.). Costurera. *Jostunagana joan, da ekarri soiñekua.* Gizona denean, **sastre**.

JÓSTUNDEI, **jóstundeixa** (d). izena. Jostundegia. • Costurería. *Gero ta jostundei gutxiao dago.*

JO-TA-PASA esapidea. "Trabajo de batalla. • Kontu edo ardura gitxikin egindako biharra. *Honek bihar merkiok jo-ta-pasa egin bihar dittuk.*" (SB Eibetno).

JOTEILLE, **joteillia** (c). Jotzailea, jotzen duena. *Joteille onak izete zien San Martzialgo erromeixan.* Musika, zartadak...

JOTEKALARI, **jotekalarixa** (d). JOTEALARI (OÑ.). "Jotzeko joera duena. *Jotekalarixa zan gure adari aura.*" (Lar Antz). "El acorneador." (Izag Oñ).

JUAN Ik. joán.

JUANIKÓTE, **juanikotía** (d). izena. Juanete. Hankako gaitza.

JUANÍKO TXÍSTU (c). Abade ehiztaria, mitologiako pertsonaia. • Cura cazador, personaje de la mitología popular que se condenó por salir en persecución de una liebre en plena consagración, y corre sin descanso tras ella. En los días de viento se pueden oír sus silbidos a los perros. Euskal Herriko beste parte batzuetan MATEO TXISTU deitzen da. Juanito Txistularixa (Eib.), Periko eta bere txakurrak. (Eib.), Martin Abade (Lein.)

JÚDAS LÓRA, **júdas loría** (d). izena. . Lunaria annua. Flor de plata. *Lunaria annua. Flor de plata. Landatuta hazten den lora hau apaingarri polita da. Sikatuta gero, loreei gaineko azala kendu eta txanpon itxurako lore zurixkak gelditzen zaizkie. Beharbada txanpon itxura horregatik datorkio izena.* Sin. pezetak.

JUEGÓORROS, **juegóorrosa(k)** izena. Rodamentuak. • Euskerización de "juego de bolos"; llamábase así antes a los rodamientos, a las bolitas de acero. *Pedalai juegoorrosak galdu jakozek.* Gaur egun *rodamentuak entzuten da.*

JÚERA, **júeria** (d). izena. JUNERA, FUERA. Harunzko bidaia, "joan-era"; etorrera-ren alderantzizkoa. • Viaje de ida. *Aruzkuian ezkiñuan eiñ juera edarra./ Eta ze moduzko jueria ein ziñuen ba?* Ant. **etórrera**.

JUÉRGA, **juérgia** (a). izena. Juerga.

juérgia gastáu (d). esapidea. Correr juerga.

Gero erremeixia, oi dan moduan, erremeixia, dana dantzia ta... juergia gastau bai, e. Lengo gaztia ba umore aundikua zan. Hil.

JUÉZ, juéza (a). izena. Juez.

juezéra jo (c). Recurrir al juez. *Urtiak demandan ibilitta gero juezera jo zeben.*

JUÍZIO1. juízo, juízua (b). izena. Zentzuna. • Juicio, sentido común. *Eztakitt noiz etorri bia jatzun juiziua./ Emuten dau edadiakin juiziuan sartu dala./ Ziero juiziua galdu zeban umia il jakonian.* Sin. **zéntzun. 2. juízo, juízua** (a). izena. Epaiketa. • Juicio.

JÚLIO, júliua (b). izena. JÚLIXO. Julio.

JUN lk. **joán**.

JUNGÚRA, junguría (c). izena. Ingudea. • Yunque. *Junguria ta maillua, ermentarixan erreminttak./ Segia pikatzeko be junguria erabiltzen da.* Lehengo eta oraingo jungurak eta sega pikatzeko modua desberdinak direla diosku Donatok. *Len junguria zan zabala eta maillukia zorrotza, ta maillukiakin etarutzen jakon segiai aua. Eta oiñ bestekaldera eitten da: maillukia zabala ta junguria zorrotza. Azpixon euki segia berdiñao eitten da maillukiakin norberak jo baiño. Zabalakin jo eta an beian eutsi. Ortarako da ori.* Don. lk. **pikámaillu, segámaillu.**

JÚNIO, júniua (b). JÚNIXO. Junio.

JÚNTA1. junta, júntia (a). izena. Batzarra. • Reunión. *Gaur juntia dago beratzittan. juntako egon* (c). Zuzendaritzako kide izan. *Bergako presidente nitzela juntako ninguen Donostien eta ba irurogetamaseixan neu nonbrau nindduen Gipuzkuako presidente.* (AA ArrasEus, 230. o.). **2. junta, júntia** (c). izena. Etxeko egituraren elementu ezberdinak (posteak eta frontalak, adibidez) bat egiten duten lekua. *Zeattik amen eingok juntia, or erdixan. Sebas.* Batzuetan, zuhaitzaren adarrak irteten diren tokiari ere horrela esaten zaie. Sin. **lázo.**

JUNTÚRA, junturía (c). izena. Bi gorputz-atal edo tresna-pieza elkartzen diren lekua. • Punto de unión de dos partes. *Umedade onek gorputzeko juntura guztiak soortzen dittu./ Bi tubuen junturan egongo da jarixua.* Gorputzeko artikulazioez esaten da sarri.

JURÁMENTU, jurámentua (c). izena. Juramento. *Kastillanuen zera ba, juramentua ta zera ta.* Don. **juramentuka** (c). adberbioa. Biraoka. Sin. **maldiziñoka.**

JURÁU (a). du aditza. Jurar.

JÚRGU, jurgúa (d). izena. Bi lursailen artean uzten den zirrindara. • Franja estrecha que se deja entre dos campos (de labradío, generalmente). *Baiña ze goldaketa ein ddok? Jurgua ta dana labrau dok eta! (behin aita-zanak neuri esana)/ Eskeria ba, sasi-zierria, bi saillen jurguan sasixakin eindda, luaixa eiñ da gero an eskeria sortzen da, zikiña.* Don.

JÚSTU1. justu (a). adberbioa. Ozta. • Justamente, por poco. *Justu aprobau dot.* **jústu-jústu1. justu-justu** (a). adberbioa. Oso gutxigatik. *Justu-justu aillegau jat dirua.* **justúan** (a). adberbioa. Gutxigatik. *Justuan arrapau neban trena.* **2. justu-justu** (a). adberbioa. Zehatz-mehatz. *Gauza guztiak justu-justu ein biar izeten die aren etxian.* lk. **ózta-ózta. jústu-justúko bérbak** (c). esapidea. Ezinbesteko hitzak bakarrik. Bi pertsonak haserre daudenean edo konfiantzarik ez dutenean egiten dutena. • El mínimo de palabras. *Alkarrekin gabizek lanian baiña justu-justuko berbak eitte jostak bakarrik./ Anai-arrebak izan arren justu-justuko berbak eingo jotsek alkarri.* **2. justu, justúa** (d).

adjektiboa. Justo, -a, recto, -a. *Gure aitta justua zan, da geuk pe al zan onduen eitten gontsan, baiña periodikua aaztu Osintxun-da juten bagiñan... Hil.*

JUSTÚLEURI, justúleurixa (c). izena. (Oñati) "La lluvia de tronada (breve)." (Izag Oñ).

JÚSTURI, jústurixa izena. (Oñati) FUSTURI (ARAM.). Trumoia. "*Jústuixak be badiardu: el trueno;*" "*jústurixak jo dau: ha tronado.*" (Izag Oñ)./ *Fusturixek datoz, eurixe eingo rau.* (Orm Aram).

JUSTÚTU (c). da aditza. Estutu, zaildu. *Aspaldixan asko justutu da bizimodua. Gutxi erabilia.*

JUZGÁU1. juzgau (a). du aditza. Juzgar.**2. juzgáu, juzgáua** (a). izena. Juzgado. *Goiko Plazan dago juzgaua.*

JÚZGU, juzgúa (d). izena. Iritzia. *Arek laster emongo dau bere juzgua.***júzgu txárrak éindda égon** (c). esapidea. Susmo txarrak hartuta egon. • *Estar lleno de recelos. Juzgu txarrak eindda egotia? Ba, batek gauza bat esan eta beste bat ete dan pentsatzen egotia. Klem./ Dirua falta izaten zuan etxian da etxekoandrioi kriadia ete zan, juzgu txarrak eindda jeuan, da azkenian zera, gizona, etxeko nausixoi, lapurra. Gaur egun **errezelu txarrak eindda egon** entzunagoa. Ik. **errézelu, -o.***